


**VILLA OKENDO-LEGAZPI**  
D MAILA

**CRISTINA INFANTA 22-24**



**Frantzisko Urkola, 1932**

#### **Deskripzioa**

Añorgako lehengo errekarerekin muga egiten zuen partzela batean dago; horrexetatik datorkio dituen mugen hiruki forma. Bi bizitza parekatu bolumen berean, profilak erdisotoa, beheko solairua eta lehen eta bigarren solairuak dituela, eta goialdea, berriz, estalki lau batez eta pergola gisako erremateaz osatua. Forma kubiko eta lauak dauzka, estilo arrazionalistari jarraikiz, Urkolak korrante horri segituz egin lan urrietako batean. Akaberek eta kanpoaldeko irudia soilak eta apaindura gutxikoak dira, bolumen sinpleak bilatzen baitira, nahiz sarrera eta estalkian badauzkan hegaldunak. Fatxadako baren antolaera bat dator logika funtzional modernoaren arabera egin banaketarekin. Adreiluzko azpadurek, kasu batzuetan, lagundu egiten dute bao garrantzitsuenak lotu eta nabarmenaraztearen arrazionalismoko apaindura jorratzen. Estalkiko pergola arotzeria bitartez itxi zuten geroago.

#### **D mailaren berariazko babes araubidea**

- 1- Babesetik kanpo lagatako fatxadako elementu edo alderdiak: pergolako itxiturak.
- 2- Fatxadako elementu edo alderdi iraunkorrak: adreiluzko elementuak, estalki laua eta pergola. Lauza hegaldunak.
- 3- Esku hartzeko murriztapen partikularrak: jasodurarik gabe.
- 4- Nahitaezko lehengoratzeak: ez dago horrelakorik.